

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Mutiko-mutikotatik musika-bandari lotuta

Ba, bai. Halaxe egon da lñaxioren bizimodua: musikariekin eta, batez be, Oñatiko bandiarekin hartu-emun estuan. **Umetatik jarraitu otsan Ibarrondotarren** familixiak gure herrixan euki eben **tradiziñuari**. Argazkixan ikusi leikien lez, **Felix aittajauna, Antonino aitta, eta zazpi urteko lñaxio mutikotxua agiri dira**, tio Eliasekin batera. Eta horreik etziran eta eztira musiko-saga horretako bakarrak izan.

Dana dala, apur bat erreparaitten badozue, **beste familixa batzuetako musikero oñatiarrak** be badagozela konturatuko zarai: hiru anae **Kortabarrittarrak**; beste hainbeste **Zabartetarrak**; **Astigarraga aitta-semiak**, **Gorostiditarrak** letxe, besteren artian. Fotografixia hau 1949xan atara euenian, lñaxio danborrero txikiñak zazpi bat urte eukiko zittuan. Hurrengo bi hamarkadetan klarinetia ez ezik beste instrumentu asko be joten ikasi eben, aitta Antoninoren gidaritzapeian.

Oñatiko udal **musika-bandia deseginddu egin zan 1969xan**. Eta hala iraun eben **1979ko Korpus egunerako barriro osotu zan arte**, baiña **orainguan lñaxio zuzendari zala**. Harrezkero, majo hazi da bandia, jeneraziño zaharrak eta barrixak nahastuaz eta emakumien parte hartze inportantiarekin. Azkenengo **berrogeta bi urtetan makiña bat kontzertu, pasakalle eta beste-lako musikaldi** entzun dira Oñatiko plaza, kale eta bestelako aretuetan lñaxio Ibarrondoren zuzendaritzapeian, sarritan berak sortutako obrekin.

Aurtengo **Errosarixoko domekan** zuzenduko dau lñaxiok bere **azkenengo kontzertu ofiziala**. Batutia esku onetan jareko dau, **hurrengo zuzendarixa Aitor Biain** musiko oñatiar ezaguna izango dalako. Baiña lñaxiok eztau bere pasiñua zihero baztertuko, San Migel parrokixako korua dirijitteko arduriari eutsiko xau-eta. Gaurko fotografixa honetan agerketan diran **musikuak 1949ko bandakuak dira**. Goittik behera eta ezkerretik ekumara honeitxek ditzuzue:

Goixeneko illaran: **Joxe Mari Uribarri, Elias Ibarrondo, Bixente Zabarte** eta **Bittor Olalde**.

Laugarren illaran: **Pedro Iraola, Jexus Guridi, Joxe Umerez, Juan Maiztegi, Jabier Zelaia, Juan Soriano** eta **Jexus Igartua**.

Hirugarren illaran: **Joxe Aranguren, Felix Losada, Bixente Igartua, Felix Kortabarria, Bixente Etxezarreta, Juanito Biain** eta **Antonio Zabarte**.

Laugarren illaran: **Migel Igartua, Antonio Gomez, Teofilo Etxegoien, Anjel Zabarte, Juan Kortabarria** eta **Juan Biain** ezkiñan.

Bosgarren illaran, aurrekaldian: **Felix Ibarrondo, Joxe Mari Kortabarria, Rodrigo Astigarraga, Jexus Astigarraga, Antonino Ibarrondo**, zuzendarixa, **Joxe Luis Ruiz de Arbulo, Patxi Gorostidi, Alejandro Irizar** eta **Tomas Uribarri**.

Makurtuta: **Joxe Mari Gorostidi** eta **lñaxio Ibarrondo**.

Argazkixa eta argibidiak lñaxiok berak eskuratu dosku. Milla esker honengatik eta, batez be, hainbeste urtian herrixaren mesedetan egin dozun lanengatik!